



Zumaian, 2019ko ekainaren 28an

Zuzendari andrea:

Gutun hau idazten dizugu Aizarnazabalgo, Getariako, Zestoako eta Zumaia udalen eta UEMAren izenean, aipatutako udalerrri horietako osasun etxeetako sendagile baten inguruan kexa bat helarazteko. *Egonkor eta malgua* kontratu motaren bidez, **euskaraz ez dakien pertsona bat kontratatu da urtebetez, ondoren kontratu hori luzatzeko aukerarekin**. Kontratazioaren izaeraren arabera, profesional hori ez da lanpostu zehatz bat ordezkatzeko, lau osasun etxeetan sortzen diren beharrak betetzeko baizik. Hizkuntza eskakizunak lanpostuei atxikitzen zaizkienez, eta kontratazio hau ez denez lanpostu jakin bat ordezkatzeko, **ez zaio hizkuntza baldintzarik ezarri. Benetan larria iruditzen zaigu jokaera hori, udalerrri hauen errealitate linguistikoa kontuan izanda, behar-beharrezkoa delako profesional euskaldunak bermatzea**.

Jakin badakigu arazoak izaten direla langile euskaldunak aurkitzeko, baina sendagile elebakarrek ez dituzte herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen. Herritarrek helarazitako kexa da honako hau, ezin dutelako sendagilearekin eroso sentitzen diren hizkuntzan komunikatu.

Aizarnazabal, Getaria, Zestoa eta Zumaia herri euskaldunak eta UEMA Udalerrri euskaldunen mankomunitateko kideak dira. Herritarren %80 baino gehiago euskaldunak dira udalerrri horietan. Euskararen arnaguneak dira, beraz; euskara eroso sentitzen den eremua, eta herritarrek normaltasun osoz erabiltzen dutena.

Hizkuntzak eta osasungintzaren kalitateak badute lotura. Osakidetzako hainbat arduradunek adierazi izan duten moduan, osagilearen eta pazientearen arteko harremanean konfiantza eta enpatia lortzeko funtsezkoa da hizkuntza. Hizkuntzaren garrantzia legeak ere jasotzen du (67/2003 Dekretuak). Erabiltzailearekiko komunikazioa ezinbestekoa da; eta, hortaz, paziente euskalduna bada edo arreta euskaraz nahi badu, zerbitzua euskaraz bermatu behar zaio.

Horrenbestez, paziente ardatza dela kontuan hartuta, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzeko helburuz, lau udalerrri hauetara mediku elebiduna ekar dezazuela eskatzen dugu.

Gure eskaera aintzat hartuko duzuelakoan, jaso ezazue agur bero bat.



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

Mari Karmen Arregi

Aizarnazabalgo alkatea

Haritz Alberdi

Getariako alkatea

Mikel Arregi

Zestoako alkatea

Iñaki Ostolaza

Zumaiako alkatea

Josu Labaka

UEMAko lehendakaria